

## IV. TITULUA HAUTESKUNDE-ARAU BIDEA

### I. KAPITULUA

#### ELKARGOKIDEEN PARTAIDETZA KARGUEN HAUTAKETAN

**35. Artikulua.-** Elkargokideek karguen hautaketan parte hartzeko duten eskubidea. Hauteskundeak hasi baino hogeita bost egun lehenagora arte aktiboak diren elkargokide guztiek hautesle eta hautagai izateko eskubidea dute Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kideen aukeraketan.

Hauteskundeak hasi baino hogeita bost egun lehenagora arte aktiboak ez diren elkargokide guztiek hautesle izateko eskubidea dute Gipuzkoako Psikologoien Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko kideen aukeraketan.

Hauteskundeen data baino hogeita bost egun lehenago beren eskubideen etetea dakarren zigorra betetzen ari diren elkargokideek eta beren kuotak egunean ez dituztenek ez dute hautesle izateko eskubidea izango.

Hauteskundeen egunean beren eskubideen etetea dakarren zigorra betetzen ari diren elkargokideek eta beren kuotak egunean ez dituztenek ez dute hautagai izateko eskubidea izango.

### II. KAPITULUA

#### HAUTESKUNDE-ARAU BIDEA

**36. Artikulua.-** Hauteskunde deialdi-epea.

Lau urtean behin Gobernu Batzordeak Gobernu Batzordeko kargu guztiak betetzeko ohiko hauteskundeetarako deialdia egingo du.

Hauteskundeetarako deialdia gutxienez hauteskundeen data baino hiru hilabete lehenago egingo da; deialdiak hauteskunde-egutegia eta bozkatzeko, zenbartzeko eta jakinarazpena egiteko prozedura adieraziko ditu, dagozkien helegiteez gain.

Estatutu hauetako 28. artikuluan aurreikusitako baldintza ematen delako ezohiko hauteskundeen deialdia egitea beharrezkoa denean, eta ezohiko hauteskundeak eskatzen dituen ezohiko gertaera bat ematen denean, deialdia aurreko paragrafoan adierazitako aurrerapenaz egingo da, eta II. kapitulu honetan xedaturiko arauak betez.

**37. Artikulua.-** Kandidaturen aurkezpena eta balioz aurkezturikoen jakinarazpena.

Deialdiaren ondoko bi hilabeteetan kandidatura osoak eta itxiak aurkeztu beharko dira, kargu bakoitzerako proposaturiko pertsona adieraziz, Gobernu Batzordeari zuzenduriko eta gutxienez hogeita hamabost elkargokideren sinadurekin abalaturiko gutun baten bidez, kandidaturara aurkeztutako pertsonen sinadurak ere sartu daitezkeelarik.

Gobernu Batzordeak hauteskunderen data baino hogeita bost egun lehenagora arte balioz aurkezturiko kandidaturen jakinarazpena elkargokide guztiei adieraziko die. Gobernu Batzordeak, Elkargoak dituen baliabideen arabera, hautagaien propaganda berdintasunezko baldintzetan egitea ahalbidetuko du eta Hauteskunde-batzorde bat izendatuko du hurrengo artikuluan zehazten den moduan.

Edozein elkargokidek hautagaien jakinarazpenaren aurkako helegitea aurkeztu ahal izango du jakinarazpenaren ondoko hiru egunetan, eta Gobernu Batzordearen Batzorde Iraunkorrek helegitea beste hiru egunen buruan ebatziko du.

Kandidatura bakarra baldin badago, berau bozketarik egin beharrik gabe, bozketaren jakinaraziko da.

### **37. Artikulua bis.-** Hauteskunde-batzordea.

Kandidaturak aurkezteko epea amaitzean, Gobernu Batzordeak Hauteskunde-batzorde bat izendatuko du, Elkargoan gutxienez bost urteko antzintasuna duten, Legeak aurreikusitako bateraezintasunen batean ez diren eta kandidatura baten parte ez diren botu eskubidedun elkargokideen artean egindako zozketan aukeratutako hiru kidez osaturik egongo dena. Lehenik Lehendakari kargua izango duen Hauteskunde-batzordeko kidea zozketatuko da; bigarrenik Idazkaritza kargua izango duena, eta hirugarrenez batzordekidea. Aldi berean ordezkoko bat izendatuko da zozketa bidez Hauteskunde-batzordeko kargu bakoitzeko.

Hauteskunde-batzordeko kideen izenak eta haien ordezkoak Elkargoko iragarkien-oholean egingo den argitalpenaren bitartez eta Elkargoak dituen komunikabide nagusien bitartez jakinaraziko zaizkie elkargokideei.

Hauteskunde-batzordeak bere betebeharrak Elkargoaren egoitzan burutuko ditu. Hauteskunde-batzordearen erabakiak haren partaideen gehiengoarenak izango dira.

Hauteskunde-batzordeak ondoko betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Gobernu Batzordeak prestatutako kandidaturen jakinarazpenaren kontra ager daitezkeen kexen ebazpena. eta behin-betiko kandidatura zerrendaren jakinarazpena.
- b) Elkargoaren egoitzan sartutako posta bidezko botoen zaintza Hauteskunde-mahaiko lehendakariari eman arte.
- c) Hauteskunde-mahaiko kideen izendapena.
- d) Eraitzen kontra aurkez daitezkeen kexen ebazpena.
- e) Behin-betiko jakinarazpenen kontra eman daitezkeen kexen ebazpena.
- f) Izendatze unetik hauteskunde-prozesu osoa bultzatu, garatu eta zaindu, beharrezko diren erabaki guztiak hartuz.

### **38. Artikulua.-** Hauteskunde-mahaia.

Bozketa hasi baino bost egun lehenago Elkargoaren egoitzan hauteskunde-mahaia osatuko da.

Hauteskunde-mahaia kandidatura baten parte edo Hauteskunde-batzordeko kide ez diren elkargokide guztien artean zozketa bat eginez izendaturiko Lehendakaria, Idazkaria eta bi Elkargokide izango ditu.

Kandidatura bakoitzak bozketa hasi baino hogeita lau ordu lehenago mahaiarentzako ikuskatzaile bat aukeratu ahal izango du.

### **39. Artikulua.-** Bozketa.

Gobernu Batzordeko kideen hautaketa sufragio unibertsal, libre, zuzen eta sekretuaren bitartez egingo da.

Elkargokideek Gobernu Batzordeak baimendutako txartel ofizialekin beren boto-eskubidea erabili ahal izango dute.

Elkargokideek, bozkatzerakoan, beren datuak eman beharko dituzte, elkargokide-txartelaren, NANaren, gidatzeko baimenaren edo indarrean dagoen legediak onartutako beste edozein antzeko identifikazio ofizial bidez, eta botoa zigilaturiko hautestontzi batean sartuko dute. Mahaiko idazkariak zerrendan idatziko du botoa eman duen elkargokidearen izena.

### **40. Artikulua.-** Postaren bidezko bozketa.

1- Botoa emateko eskubidea duten elkargokideek postaren bidez bozkatu ahalko dute. Aukera hau hautatzen duenak boto txartel ofiziala eskatu beharko du Elkargoko Idazkaritzan, bertan aurkeztuz edota posta ziurtatu bidez bozketa baina gutxienez 15 egun lehenago.

2- Idazkaritzak boto txartel ofizialak eta bi gutun-azal zuri bidaliko ditu posta ziurtatu bidez edo pertsonalki gutxienez hauteskunde-data baina hamar egutegi-egun lehenago.

3- Bozkatzaileak boto txartela bidalitako gutun-azal txikian sartu beharko du eta, behin itxita, Elkargoak bidalitako gutun-azal handian sartuko du Elkargokide Karnetaren fotokopiarekin edo aurreko artikuluan aurreikusitako edozein dokumenturekin batera. Gutun-azal hau Elkargora bidali beharko da Hauteskunde-mahaiko lehendakariarentzat posta ziurtatu bitartez, edota pertsonalki Elkargoko egoitzan emanez, eta soilik Elkargoko Idazkaritzan Hauteskundeak hasi baino 24 ordu lehenago sartu bada onartuko da.

### **Artículo 41.-** Bozketa- eta zenbaketa-aktak.

Zuzeneko bozketa amaitzerakoan eta zenbaketa hasi baino lehenago, mahaiak bozketaren egunera arte postaz bidalitako botoak beren eskubidea pertsonalki erabili ez duten elkargokideenak direla egiaztatuko du. Elkargokideren batek zuzenean bozkatzeaz gain bere botoa postaz ere bidali duela ikusten baldin bada, botoa baliogabetu egingo da. Ondoren, gutunazal handiak ireki eta boto-txartelak dituzten gutunazalak hautestontzian sartuko dira, eta gero zenbatu egingo dira. Zenbaketa publikoa izango da.

Hauteskunde-mahaiko idazkariak bozketaren eta gertakarien akta egingo du; akta mahaiko kide guztiek sinatu beharko dute, eta ikuskatzaileek ere bai, baldin badaude. Ikuskatzaileek kexak aurkezteko eskubidea izango dute, zeintzuei Hauteskunde-batzordeak aurkituko dien irtenbidea. Sinadura sinatzaileak egokitzen dituen eragozpenbideekin jarri ahalko da, hauek idatziz zehaztuz.

Behin bozketa amaituta zenbaketa burutuko da, publikoa izango dena, haren emaitza aktan sartuz.

#### **42. Artikulua.-** Zenbaketa-sistema.

Zenbaketa-sistema ondokoa izango da:

- a) Kandidatura osoek lortutako botoak zenbatuko dira.
- b) Boto gehien jaso dituen zerrenda hautatuko da. Berdinketa baldin badago, errepikatu egingo da bozketa.

Zirriborroak, zuzenketak edo zenbaketan akats bat eragin dezaketen aldaketak dituzten txartelak baliogabeak izango dira. Txartel bat baino gehiago duten postaz bidalitako botoak ere baliogabeak izango dira, txartel guztiak kandidatura berekoak izan ezean. Kasu horretan, txarteletako bat bakarrik zenbatuko da.

#### **43. Artikulua-** Hautaturiko kandidaturaren jakinarazpena.

Ikuskatzaileen kexen eta gainontzeko intzidentzien aurrean, Hauteskunde-batzordeak bozketa ezeztatu dezakeen forma edo hondoko akatsik aztertzen ez badu, hautaketaren emaitza izendatuko du hamar eguneko epean, elkargokide guztiei jakinaraziz, izendapena eta ondorengo berrogeita zortzi orduko epearen barruan eta Elkargoko Idazkaritzan argitaratuz, izan litezkeen kexentzako bost eguneko epea irekiz.

Behin erreklamazio epea amaituta, Hauteskunde-batzordeak erabakiak hartuko ditu haien inguruan hamar eguneko epean, eta hauteskundeak baliogabetzeko arrazoirik ez dagoela ikusten badu, behin-betiko hautatutako Elkargoko Gobernu Batzordetzat izendatuko du Estatutu honetan aurreikusitako zenbaketa-sistemarekin bat eginez ateratzen dena, Elkargoko Idazkaritzaren bitartez emaitza elkargokide guztiei, Gipuzkoako Foru Administrazioari, Eusko Jaurlaritzari, Euskadiko Psikologoien Batzordeari, baldin badago, eta Psikologoien Elkargo Ofizialen Batzorde Gorenari jakinaraziz.

Hautaturiko Gobernu Batzordea jakinarazpenaren ondoko hilabetearen buruan bere karguaz jabetuko da.

#### **44. Artikulua.-** Izendapena baliogabetzea.

Emandako gertaerengatik edo aurkeztutako kexengatik Gobernu Batzordeak izendapena baliogabetzea erabakitzen baldin badu, hauteskundeetarako beste deialdi bat egingo du; hauteskundeak gehienez bi hilabeteren buruan egingo dira, eta ordura arte ez dira azken emaitzak jakinaraziko.

#### **45. Artikulua.-** Hauteskunde-gaiei buruzko errekurtsioak.

Gobernu Batzordeak hauteskunde-gaietan hartutako erabakien aurka, edozein elkargokidek Batzorde Orokorraren aurrean ohiko errekurtsioa aurkeztu ahal izango du, eta Batzorde Orokorrak eskumen hori Euskadiko Psikologoien Batzordeari eman ahal izango dio berau sortzen denean.

Euskadiko Psikologoien Batzordea sortzen denean, haren aurrean ohiko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da. Helegitearen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-bidea hasi ahal izango da.